4/1986 Legearen araberako estatistika–isilpekotasunez bermatutako estatistika–informazioan aplikatzeko ez dira izango.»

hau esan behar du: «3.– Estatistika–isilpekotasuna.

Honen idazatietan jasotako Erregistroko datuen sarrerarako eta publizitaterako mugak Euskal Autonomi Elkartearen Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen araberako estatistika–isilpekotasunez bermatutako estatistika–informazioan aplikatzeko ez dira izango.».

Vitoria-Gasteizen, 1996ko ekainaren 11n.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

estadístico conforme a la Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi.»

Debe decir: «3.– Secreto Estadístico.

Las limitaciones de acceso y publicidad de los datos del Registro recogidas en los apartados anteriores, no son de aplicación en la información estadística garantizada por el secreto estadístico conforme a la Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi.»

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 11 de junio de 1996.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

## OSASUN SAILA

### 3137

AGINDUA, 1996ko ekainaren 12koa, Osasun sailburuarena, Osakidetzaren oinarrizko laguntzako osasun eskualdeeetako farmazia batzordeak sortzen dituena.

Osasun Sailaren eta Osakidetzaren egitura organikoak eta funtzionalak ezartzen dituen uztailaren 11ko 369/1995 Dekretuaren 22. atalak oinarrizko laguntzako osasun eskualdeak arautzen ditu. Bertan xedatzen denez, eskualde hauek osasun barrutiaren administrazio periferikoko unitateak dira, oinarrizko laguntzako osasun-prestazioak eta zehazten diren gainerako prestazio komunitarioak bereganatuko dituztenak; eskualdeko zuzendariaren betebeharrak hauek dira, besteak beste: dagozkien zentroetara adskribatutako osasun-zerbitzuen eta administrazioko zerbitzuen antolakuntza, kudeaketa, ebaluazioa eta kontrola zuzendu, bultzatu eta koordinatzea, eta esleitutako helburuak betetzen diren zaintzea.

Gainera, une honetan botika berri ugari merkaturatzen dira urtero, eta horrek zaildu egiten du hainbat alternatiba terapeutiko egoki aztertzea eta botiken erabilera arrazionala bultzatuko duten irizpide zuzenak eguneratzea. Horregatik ikusi zen, aspalditik, eremu honetan arituko diren oinarrizko laguntzako organo aholkuemaileak sortzeko beharra.

Sortu nahi diren Osakidetzaren oinarrizko laguntzako osasun eskualdeeetako farmazia batzordeen helburua hau izango da: eskualdeetako zuzendariek eskura izan dezatela, botiken erabilera zuzenaren inguruko gaietan, kontsultarako organo aholkuemaile baten laguntza.

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### 3137

ORDEN de 12 de junio de 1996, del Consejero de Sanidad, por la que se crean las Comisiones de Farmacia de las comarcas sanitarias de atención primaria de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

El Decreto 369/1995, de 11 de julio, por el que se establecen las estructuras orgánicas y funcionales del Departamento de Sanidad y del Organismo Autónomo-Administrativo Osakidetza-Servicio vasco de salud, regula en su artículo 22 las comarcas sanitarias de atención primaria, definiéndolas como unidades de organización y administración periférica de las Áreas Sanitarias, que asumirán las prestaciones sanitarias de atención primaria y demás prestaciones de carácter comunitario que se fijen, correspondiendo a su Director de Comarca, entre otras, la labor de dirigir, impulsar y coordinar la organización, gestión, evaluación y control de los servicios sanitarios y de las administraciones adscritos a los respectivos centros, y velar por el cumplimiento de los objetivos asignados.

Además, en este momento existe un elevado número de nuevos medicamentos que se comercializan anualmente, lo que dificulta el análisis de las diversas alternativas terapéuticas y la actualización permanente de pautas racionales de uso de medicamentos, por lo que desde hace tiempo se viene planteando la necesidad de crear órganos consultivos en el ámbito de la atención primaria que asesoren en este campo.

Con objeto de que los Directores de Comarca cuenten con un órgano consultivo de asesoramiento en los múltiples aspectos relacionados con la utilización adecuada de los medicamentos, se pretenden crear las Comisiones de Farmacia de las comarcas sanitarias de atención primaria de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Bestalde, lehen aipatutako 369/1995 Dekretuko 12. atalaren bukaeran ezartzen denez, Osasun sailburuaren aginduen bidez, Osakidetzan beharrezkotzat jotako organo aholkuemaileak eta partaidetzakoak eratu ahal izango dira.

Ondorioz, hau

XEDATU DUT:

*1. atala.–* Farmazia batzorde bana sortzen da Osakidetzako oinarrizko laguntzako osasun eskualdeeetan, botiken erabilera zuzenaren inguruko gaietan kontsultarako organo aholkuemaile gisa jarduteko; eskualdeetara atxikitako organoen izaera izango dute.

*2. atala.–* Honakoak dira farmazia batzordeen zereginak:

1) Oinarrizko laguntzako farmazia zerbitzuari aholkularitza lana eskaintzea botikak eta osasun gaiak hautatu, erosi, biltegiratu, zaindu, kontserbatu eta zentroetan banatzerakoan, apirilaren 25eko Osasuneko 14/1986 Lege Orokorraren 103. atalean xedatutakoarekin bat.

2) Osasun Eskualdean bereziki azpimarratzekoak diren gaixotasunak tratatzeko gomendatutako botiken zerrenda egitea.

3) Neurriak proposatzea, botiken zerrenda horrek ahalik eta onarpen zabalena izan dezan Osasun Eskualdeko profesional sanitarioen artean.

4) Botikek sortutako kontrako erreakzioen berri EAEko Sendagai–Zaintzako Zentroari borondatez jakinaraztea bultzatzea.

5) Jarduerak proposatzea, Osasun Eskualdean botikak ahalik eta zuzenen erabil daitezen.

6) Koordinatzea lekuan lekuko ospitaleko farmazia batzordearekin.

7) Farmazia batzordeen lana ebaluatzea.

*3. atala.–* Farmazia batzordeek euren araudi berezkoa izango dute eta, horren faltan, Herri-Administrazioen Lege-Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio-Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko zaie.

*4. atala.–* Farmazia batzordeek lehendakari bat eta zortzi bokal, hauetako bat idazkari gisa jardungo dena, izango dituzte.

Horien izendapena egiteko irizpide hau hartuko da aintzat:

Lehendakaria: Eskualdeko zuzendaria.

8 bokalak:

– Oinarrizko laguntzako Farmazia Zerbitzuko botikari bat, Eskualdeko zuzendariak izendatua.

– Lau mediku, Eskualdeko mediku profesionalek proposatuta eta Eskualde zuzendariak izendatuta.

– OLT/EDU bat, Eskualdeko erizaintzako profesionalek proposatuta eta Eskualdeko zuzendariak izendatua.

Por otro lado, el artículo 12 in fine del citado Decreto 369/1995, establece que por Orden del Consejero de Sanidad se podrán constituir órganos consultivos y de participación en dicho organismo.

Por todo ello,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Se crea en cada una de las comarcas sanitarias de atención primaria de Osakidetza-Servicio vasco de salud, una Comisión de Farmacia, como órgano consultivo adscrito a las mismas, para el asesoramiento en la utilización adecuada de los medicamentos.

*Artículo 2.–* Son funciones de las Comisiones de Farmacia las siguientes:

1) Asesorar al servicio de farmacia de atención primaria en la selección, adquisición, almacenamiento, custodia, conservación y dispensación de medicamentos y productos sanitarios para su aplicación en los centros, de acuerdo con el artículo 103 de la Ley 14/1986, de 25 de abril, General de Sanidad.

2) Elaborar un formulario de medicamentos recomendados en el tratamiento de aquellas patologías de elevada prevalencia en la comarca sanitaria.

3) Proponer medidas para que el citado formulario sea aceptado por los profesionales sanitarios de la comarca sanitaria.

4) Impulsar la notificación voluntaria de reacciones adversas sobre medicamentos al Centro de Farmacovigilancia del País Vasco.

5) Proponer todas aquellas actuaciones destinadas a que la utilización de medicamentos en la comarca sanitaria sea lo más racional posible.

6) Coordinarse con la Comisión de Farmacia del Hospital de referencia.

7) Evaluar las actividades de la Comisión de Farmacia.

*Artículo 3.–* Las Comisiones de Farmacia se regirán por su propio reglamento y subsidiariamente por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 4.–* Las Comisiones de Farmacia estarán compuestas por un Presidente y 8 Vocales, uno de los cuales actuará como Secretario.

La designación se realizará teniendo en cuenta la siguiente distribución:

Como Presidente, el Director de Comarca.

8 Vocales:

– Un farmacéutico del Servicio de Farmacia de atención primaria, designado por el Director de Comarca.

– Cuatro médicos, designados por el Director de Comarca, a propuesta de los profesionales médicos de la comarca.

– Un ATS/DUE, designado por el Director de Comarca, a propuesta de los profesionales de enfermería de la comarca.

– Botika-bulegoa Osasun Eskualdean kokatua duen botikari bat, dagokion Botikarien Elkargo Ofizialak izendatua.

– Erreferentziako ospitaleko Farmazia Zerbitzuko botikari bat, ospitaleko Farmazia Zerbitzuko arduradunak proposatuta eta zentroko kudeatzaileak izendatuta.

*5. atala.*– Farmazia batzordeak hilean behin bilduko dira, lehendakariak horretarako deialdia egin ondoren; salbuespenez, lehendakariak berak deituta edota edozein kidek eskatuta, ohiz kanpoko bilkurak egin ahalko dira.

*6. atala.*– Farmazia Batzordeak proposatuta eta egokia ikusten denean, bileretan aztertu beharreko gaietan adituak diren profesionalak gonbidatuko dira parte hartzera, bai bileretan, bai batzordearen jardueratan ere.

*7. atala.*– 1.– Lehendakariak, Batzordearen ordezkotza egiteaz gainera, honako funtzioak izango ditu:

a) bilkurak deitzea eta bertako gai-zerrenda taxutzea.

b) bilkuretako burua izatea eta eztabaidak bideratzea.

c) bozketetan berdinketa gertatzen denean, erabakia hartzea bere botoaren bitartez.

d) bere karguari dagozkion gainerako zereginak.

2.– Idazkariak, berez dagozkion funtzioak betetzeaz gainera, honako zereginak izango ditu:

a) Farmazia Batzordearen helburuak lortzeko jarduerak bultzatzea.

b) Batzordeak hartutako erabakiak burutzea.

*8. atala.*– Otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan ezarritako ordainsariak kenduta, farmazia batzordeetako kideek eta kolaboratzaileek ez dute bertan egindako lanagatik ordainketarik jasoko.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 1996ko ekainaren 12a.

Osasun sailburua,
IÑAKI AZKUNA URRETA.

– Un farmacéutico con oficina de farmacia ubicada en la correspondiente comarca sanitaria, designado por el Colegio Oficial de Farmacéuticos correspondiente.

– Un farmacéutico del Servicio de Farmacia del hospital de referencia, designado por el Gerente del centro, a propuesta del responsable del servicio de Farmacia Hospitalaria.

*Artículo 5.*– Las Comisiones de Farmacia se reunirán con carácter ordinario una vez al mes, previa convocatoria realizada por su Presidente, y excepcionalmente con carácter extraordinario a convocatoria del Presidente, o a solicitud de cualquiera de sus miembros.

*Artículo 6.*– A propuesta de cada Comisión de Farmacia, podrán acudir a las reuniones que se celebren, y colaborar en el desarrollo de sus actividades, otras personas de reconocida competencia en los temas a tratar, y cuyas aportaciones sean consideradas de interés.

*Artículo 7.*– 1.– Son funciones del Presidente, además de la representación de la Comisión:

a) la convocatoria de las sesiones y la fijación del orden del día.

b) presidir y moderar el desarrollo de los debates.

c) dirimir con su voto los empates a efectos de adoptar acuerdos.

d) efectuar cuantas otras funciones sean inherentes a su condición.

2.– El Secretario, además de las funciones que le son propias, ejercerá las siguientes:

a) impulsar las actividades relacionadas con los objetivos de la Comisión de Farmacia.

b) ejecutar los acuerdos que adopte la Comisión.

*Artículo 8.*– Sin perjuicio de las dietas e indemnizaciones que conforme al Decreto 16/1993, de 2 de febrero, les pueda corresponder, los miembros y colaboradores de las Comisiones de Farmacia no percibirán retribución alguna por su pertenencia o colaboración con las mismas.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de junio de 1996.

El Consejero de Sanidad,
IÑAKI AZKUNA URRETA.